


FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Jarraian, gure negozio ereduak funtzionatzeko behar diren aktibo garrantzitsuenak deskribatuko dira.

Baliabide fisikoak:

Eraikin handi bat beharko dugu, Oviedon kokatuta egongo dena. Bertan, erlojuen ekoizpena emango da soilik (erlojuen barruan eguzki izpiak txertatzea, etab.) Hau sektoreetan banatuta egongo da, hala nola ingeniariaren sektorea, piezak muntatzeko behar ditugun langileen sektorea, abokatuen sektorea, marketin sektorea, etab. Gure intentzioa lana ahalik eta produktiboena izatea baita, hau da, kate lana.



Baliabide intelektualak:

- Gure *abokatu pribatuak* patentez eta egile eskubidez arduratuko dira.
- *Informatikariak* bezeroen datuez arduratzera bideratuko dugu (informazio pribatua, bezeroen datu baseak,...) Honi esker, datu horiek segurtasun baten barruan bilduko dira eta pribatutasuna mantenduko da
- *Enpresaren irudiaz arduratzen den sektorea* marka famatua egiteaz arduratuko da publizitate onak eginez, enpresaren itxura hobetuz. Horrela, enpresaren irudia geroz eta ezagunagoa egingo da mundu osoan zehar eta salmentak igo egingo dira. Publizitate horiek, telebistan, irratan, sare sozialetan... agertuko dira.

Bestalde, gure produktua patentatzea ezinbestekoa izango da. Horrela, beste enpresek ez dute eskubiderik izango ideia berdina lantzeko ez aldaerak egiteko ere eta fabrikatzeko eskubidea Canada S.A-k edukiko du soilik.

Giza baliabideak:

Gure kasuan, enpresak eta proiektuak aurrera egin dezan, ezinbestekoa da ingeniarien, abokatuen, banatzaileen, komertzialen, bezeroarekiko arretarako pertsonalaren, enpresaren itxuraz arduratzen diren langileen eta web diseinatzaileen elkarlana. Langileek ikasketa maila altua behar dute ekoizpenaren arloan lan egiten badute.



Finantza baliabideak:

Enpresa berdea denez, estatuak subentzio bat emango digu mota horrelako enpresei laguntzeko, beraz estatuaren subentzioa izango dugu hasieratik (enpresak energia berriztagarrien erabilpena eta planetaren ongizatea ditu oinarri). Bestalde, inbertitzaileengatik ere dirua lortu dezakegu. Honela, lehenengo soldatak, materialak, eta eraikineko instalazioak ordainduko ditugu.

Enpresa hazten doan heinean, bai pertsonala eta bai barne-instalazioak hari egokituko dira. Hau da, enpresak edukiko dituen baliabideen kalitatea hobea izango denez eta diru-sarrerak ugariagoak izango direnez, enpresaren azpiegitura horri moldatuko da; pertsonal adituagoa kontratatuz, material jasangarriagoak erabiliz...